

SARRERA

Lehen Hezkuntzako garaian oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Lehen Hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.

EUSKARAREN LOREA

JARDUERA MOTA

Jarduera gidatua.

LEKUA

Gela edo patioa.

EDUKIA

ZER LANTZEN DA

- Talde lana
- Laguntza eta elkarlan jarrera ikaskideekin
- Elkarlana eta laguntza eguneroko lanak egiteko eta besteei laguntzeko
- Hizkuntza komunikatzeko bide bezala
- Beste hizkuntzen ezagutza
- Hizkuntzak aztertu, hausnartu, eta hauen zaintza
- Adierazpen plastikoaren oinarritzko teknikak

MATERIALA

- Kartulina
- Puntzoia edo txintxeta
- Zelo
- Koloretako margoak
- Kola
- Guraizeak

DESKRIBAPENA

Euskaraz hitzegiteak, apaindu eta kolorea ematen digu, lore batean petaloek egiten duten moduan.

Ikasleei, beraien artean euskaraz hitz egiteko erronka iradokiko diegu, petaloz beteko dugun lore bat erabiliz.

Euskaraz hitz egitea, loreen moduan ingurua alaitzen du, goazen gelan udaberria piztera!

PROZEDURA

Talde bakoitzeko lore bat osatuko da, horretarako plantila erabili edota haur talde bakoitzak bere lorea irudikatu dezake, hizkuntzak bezala loreak anitzak direlako. Kontuz, loreak ezin ditu petaloak eduki oraindik!

Ondoren, bakoitzak zenbat hizkuntza menperatzen dituen azaltzeko aukera luzatuko zaie, eta honen zerrenda bat osatuko da. Zerrenda hori sortzean, komunean jarriko da. Hizkuntza bakoitzari kolore bat emango zaio, kolore hauek gero lorean petaloak izango dira.

Erronkarekin jarraituz, gelan udaberria heltzeko beraien laguntza behar beharrezkoa dela aipatuko zaie, talde bakoitzak bere lorea sortzeko aukera izango duela jakinaraziz.

Egunaren bukaeran talde bakoitzak hausnarketa egin beharko du, zein hizkuntza erabili duen esanez eta loreari petaloa gehitu ahal badioten erabaki beharko du. Modu honetan, elkarlanean gela loreez beteko dute eta euskarari indarra emateko, euskararen petaloak zenbatuko dira, nahikoak al dira? Zer egin genezake lore honek euskararen petalo gehiago izan ditzan?



